

Literatura

Prime-time
John Andueza
Elkar, 2014



Bizitzaren biktimak

HELDUEN LITERATURAN debutatu berri du John Anduezak (Oregon, AEB, 1966) *Prime-Time* eleberriarekin. Idazle lanez gainera, zinemagintzan, telebistako aurkezle, kazetari, zuzendari eta aktore lanean ere aritu da. Esan daiteke beraz, eskuartean dugun intrigazko eleberrri hau, bere ibilbide hibridoaren emaitza dela.

Intrigaren tratamenduak eleberraren eraiketan garrantzi handia hartzen du. Bi maila desberdinetan landua izateagatik trama bikoitza sortzen dela irudituzait. Alde batetik, krimen kateatuen kasua argitu behar duen tramaren intriga, eleberrri poliziakoaren funtsa, alegia. Eta bestetik, bi pertsonaien istorioaren gaineko tramak sortutakoa, soziologikoagoa, eleberrri beltzari hurbiltzen zaiona. Hau da, pertsonaiek gaur bizi duten tragediaren tramaren intriga. Trama biek *Prime-Time*an, alegia, audientzia gehien biltzen den momentuan, bat egingo dute.

Bala eta Klemente Ertzaintzatik kanporatu zituzten, Irrintzi Operazioan hanka-sartze handia egiteagatik. Kolpe itzela izateaz gainera, bien arteko erlazioan arrasto traumatiko bat utzi duela konturatzen gara hastapenetik. Gaur, halabeharrez, detektibe pribatu gisa lan egiten dute, San Mames mitikoaren itzalpean.

Dei batek Bala eta Klementeren bizitzak astinduko ditu. Poliziaren ikertzaile ofizialek suizidiotzat hartu zuten kasua, Getxoko haitzetan hilik agertu zen komunikabideen munduko presentzia garrantzitsu batena, berriz ikertzeko eskatuko diete. Balak eta Klementek beren irudia garbitu ahal izateko erronka bezala jasoko dute dei hori. Behingoz, ofizioarekiko zorra ordaintzeko aukera ezin hobea heldu zaie. Gauzak konplikatuz joanen dira, heriotzak gehituz doazen heinean.

Kasuaren tramak aurrera egin ahala, bi pertsonaien arteko erlazioaren istorioak denboran atzera egingo du. Iragana agerian geratzen den neurrian, Bala eta Klemente geroz eta biluztuago ikusiko ditugu. Bizitzaren beste bi biktima dira.

Sorpresaren elementua eleberrri osoan zehar dago presente. Erruduna salatu dezaketen elementuak ez daude derrigor ezkutaturik, badira ebidentzia argiak. Baina errudunaren susmoa izanda ere, Anduezak istorioa bihurritzeko gaitasun izugarria azaldu du, ustekabetsuna eleberraren ardatz bilakateraino. ■

Saioa
Ruiz Gonzalez

Kamiseta lehiaketa

20 urteak

Kafe Antzokiaren 20. urteurreneko kamiseta lehiaketa

Baldintzak eta informazio osoa www.kafeantzokia.com

www.kafeantzokia.com

kafe antzokia

zenbat gara

www.bilbohiria.eus

BI-96.0-FM

Bilbo Hiria Irratia